

# Pantera elurretan bezala

Yoseba Peña

**Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
2011**



Zumaiko Udala

*en skara  
txanpa*



# Pantera elurretan bezala

Yoseba Peña

Julene Azpeitia 24. ipuin lehiaketa

2011

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Yoseba Peña (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Kilimanjaro elurrez estalitako mendi bat da, 19.710 oin garai, Afrikako altuena omen dena. Masaiek mendebaldeko tontorrari 'Ngaje Ngai' deitzen diote: Jainkoaren etxea. Mendebaldeko tontorretatik gertu pantera baten hezurdura lehor eta izoztua dago. Inork ez du oraindik argitu zeren bila zebilen lehoiabarra altuera horretan.

Ernest Hemingway, "Kilimanjaroko elurrak"

IKUSTEN DU. Hil egingo den arratsalde hartan Tomas Ormaecheak dena ikusten du: emaztearen gehiegizko poza, alaba eta suhiaren umiltasun faltsua, seme nagusiaren alferrikako handinahia, ertainaren aharrausiak. Etxera eskapatzeko irrika nabaritzen zaio; Tomas ziur dago baboak gaua igaro duela maitalearekin. Ez du *hori* zentsuratzen —ez da hain zinikoa—, familiari huts egitea baizik. Hogei urte daramatza Amaia *bisitatzen* inor mindu gabe. Arau erraz bati besterik ez zaio jarraitu behar: egiten duzuna egiten duzula, egizu ondo. *Ondo* horretan, baina, datza giltzarria.

Urrezko ezteiak, bazkaria, sendia: harmonia eta zoriontasuna, omen. Seme nagusia ondora begira harrapatzen du, adigabe. Bere burua enpresari arrakastatsutat izan arren gizajo hutsa da: kalean otso, etxean uso. Argi dago emaztea faltan botatzen duela. Edo emazte ohia, auskalo: badira bost urte familiako ekitaldietan azalpenik gabe agertzeari utzi zionetik. Ormaecheak ez daki oraindik zer gertatu zen, ezta umeak norekin bizi diren ere. Esan gabe doa, inor ez da ezer galdetzen ausartu.

Gorbata pixka bat askatzen du; izerditan dago, izerdi hotza, baina. Bilobak hurreratzen zaizkio lotsati zirriborro batzuk emateko: etxea, bi ume, gurasoak eta txakurra; kotxea, lau pertsonarekin; neskato bat ama eta aitaren eskutik... Paul Newman eta Liz Taylorren pelikula bat gogoratzen diote, katemearena. Ez zitzaion bereziki gustatu, baina eszena bat ezin izan du sekula burutik aldendu: seme nagusiak eta errainak beren haurtxoak bidaliz patriarkaren mesedea eskuratzeko eta hark agertutako arbuioa; zinema, bizitzaren isla garratza.

Bistakoa da abagunerako propio marraztuak ez direla; beharbada horrek eragingo du umeen urduritasun mesfidatia. Ez dakite ondo aitonaren aurrean nola jokatu gurasoek eskatu dietena betetzeko; alderantziz gauza bera gertatzen da: Tomasek txanpon batzuekin erosten die bakean lagatzea.

Denborak ez dio harreman estua finkatzen ahalbidetu, seme-alabekin bezala. Beldur eta premian oinarritutako mendekotasuna du tradizio: erregearen bakardadea. Marijerekiko lotura ere ez da hobea: ondoan eserita, hamabost urteko neskatxo baten moduan egiten du irri, antsia batean, kotoizko bere munduan bakartuta. Elkar ezagutzean dirdira berezia zuen: izugarri polita, lasaia, eraman onekoa eta, lotsa gainditzea lortzen zuen gutxietan, baita azkarra ere.

Ormaecheak garondoa masajeatzen du. Goizetik pairatzen ari den zanpaketa-sentsazioa hedatuz doa. Adinarekin, horrelako ekitaldi aspergarriak jasatea gero eta zailago egiten zaio. Koinatuaren txantxa bati irribarrez erantzuten dio, kasu askorik egin gabe. Burusoildua eta lodi-lodia dago Marijeren neba, leinuaren gaztaroko edertasuna erraz zimeltzen dela frogatzen du horrek.

Tomas, ordea, lagunaren artean salbuespena da horretan. Tira, Luistxo ere bai, baina hau jada ez dago ezertarako. Luis Eguia: txiki-txikitatik mantendu izan duen lagun min bakarra, Marije baino zentzu gehiagotan bikotekide: musean banaezinak, parrandetan, abenturetan, erronketan. Memoria arazo eta umore aldatetekin hasi eta amen batean ez zen gidatzeko gai ere. Alzheimer: atzerriko azti baten zorigaiztoko biraoa.

Ormaecheak abisutzat hartu zuen Luistxoren eria eta eskolan entzundako pasadizoa aditu egin zuen azkenean. Erroman, garaipena ospatzeko koadrigan bi pertsona zihoazen: jenerala, jendetzaren laudorioak jasotzen, eta esklaboa, hari ereinotz koroa eutsiz. Honen bigarren betekizuna, halere, askoz garrantzitsuagoa zen: gizon hilkorra besterik ez zela etengabe gogoratzea, gizon hilkorra.

Koinatua bere arreta erakartzen setatzen da; ergela bi kopa edanda mozkortzen da. Sekula ez dira lagunak izan: ezkon aurretik ez zizkion gauzak batere arindu Marijeren gurasoekin eta ez dio inoiz barkatu. Egia esan, koinatuak gauza xume bat baino ez du ondo egin bizitzan: Unairi izena aukeratzea. Unai. Hori da, hain zuzen ere, ospakizun horretan faltan botatzen duena: Unai maitea, seme-alaben artean bere antza zuen bakarra —zentzu guztietan—. Katemearen pelikula berriro ere: han, aldiz, patriarkak behintzat aukera izan zuen semeari laguntzeko. Aukera edo.

Izerdia garbitzen du kopetatik; azala itsaskorra, ezinegon. Koinatua baztertzeke beste aldera begiratzen du; saihestu ezinik, Unairen irudia zabaltzen zaio gogoan. 15 urte dagoeneko; denborak azkarregi egiten du aurrera eta, halere, egunero biziberritu izan du tragedia: deia gauerdian, autoa puskatu zen kurba madarikatu hura, droga-analisen emaitza positiboak, familiagatik dena estaltzeko bere erabakia. Bere sekretua. Bere barruko pipi gosea. Unairen heriotzak egia mingarri bat azaleratu zion: bere bizitza ez zela perfektua eta ez zela sekula izango.

Istripu aurretik Marije abandonatzeko erabakia hartua zuen; ondoren ezin, ez Marijek burua berriz altxatu arte. Tamalez, somniferoak, antidepressiboak eta botika guztiak premia bihurtu ziren. Ormaecheak zioen moduan, ito egin zuten jarabe puta horietan, ito. Zoriontsu eta libre izateko bere azken aukerarekin batera.

Tartean-tartean Marijek argitasun une urriak zituen. Haietako batean bururatu zitzaion ezkontzaren urteurrenarena: *denek* ospatzen zutela, familia batzeko parada zela... Zer esanik ez, Tomasentzat bi arrazoi horiek, hutsaren hurrengo. Kezka askoz larriagoak zituenez, onartu egin zuen.

Ametsa helburu, edota helburuarekin amestuz, Marije pitin bat berpiztu eta gogotsu ekin zion *lanari*: jatetxea bilatu, egitaraua antolatu, soineko eta traje berriak erosi, senide guztiei gonbidapenak helarazi. Zaharrenak izandakoaren karikatura zatarrak ziren, ileorde eta guzti: neba astuna, ahizpa santujaleak, koinatu txikiteroa eta iloba mongolikoa.

Tomasek ez zuen seniderik: kale gorritik eta bere kasa eraikia zuen Ormaechea Fundiciones S.L., lantegian irakurtzen eta idazten ikasiz, soilik baserritarren zuhurtzia lagun.

Erretiroa hartzeko orduak ez zizkion ohiturak fitsik ere aldatu. Zer egin behar zuen, ba, jubilatuta? Baratzean aritu? Paseatu? Baita zera ere! Primeran sentitzen zen, buruz eta gorputzez —Amaia lekuko—. Bera ez zen zahartzen, itsas labar egoskorra zen, olatuei beti harro aurre eginez. Jakin bazekien afari eta jendaurreko ekitaldietan bolo-bolo zebilena: Marijek bere ama zirudiela. Egia borobila.

Munduak bere horretan zirauen harik eta hankarena gertatu arte. Koskor batzuk iztaian agertu eta medikuak, badaezpada, kentzea agindu zion. Ordurako Luis bere buruko eldarnioetan galduta zebilen eta Ormaechea lehen aldiz izutu egin zen. Baja hartu, bizitzan lehenaldiz hori ere, eta sendatzean kontzentratu zen. Bartzelonara munduko medikurik onenengana jo eta beste errekor bat eskuratu zuen: 2 hilabete, 59 egun hain zuzen ere, eta senda-agiriarekin etxera. Geldiezia sentitzen zen: bainuetxe batean astebetetz atsedena hartzeko gomendatu arren, lana utzi izanak lotsa pixka bat ematen zionez, zuzenean itzuli zen. Esan beharrik ez, inor jakinaren gainean jarri gabe.

Marijeren dei beldurtiak jo zuen alarma: seme-alabak eta suhia batzar gelan giltzapetu ziren larrialdiko estrategia batera finkatzeko. Tomas, halere, tronua berreskuratzeko desiratzen, bere bulegora abiatu zen ongi-etorriko komitea baztertuta. Hara: gominadun harroputz bat ordenagailu ñimiño batekin aurkitu ez zuen, ba! Bere santutegian, inor ezta ukitzen ere atrebitzen ez zen aulkian eserita!

Berehala konprenitu zuen: ez zuten beraietako bat enpresaburu hautatzen asmatu. Sumindura jainkotiarra: familiaren kontuak gidatzeko kanpoko bat ekartzea ere! Orro batekin, muleta albo batera jaurti eta sasi-jakintsua gorbatatik arrastaka bota zuen kalera. Eta eskerrak ezin zuen hanka zeharo mugitu. Gero, alferrik seme-alaben erreguak eta popatik hartzera suhiaren berriketa psikologikoa: denak etxera bidali zituen eta hilabetez bueltatzea galarazi zien. Ikas zezatela.

Hotzikara: handik urrun egon nahiko luke. Obligazioak, alabaina, bete behar dira. Ene: dena familiagatik eman eta, trukean, betebeharrak eta kateak baino ez zituen jaso. Baita oinazea ere.

Biloba txikitxo eta inuzenteena kartoizko fardel bat eskuetan hartuta hurbiltzen zaie. Marijek haurrak ihes egitea lortu aurretik musuz estaltzen du. Beste biloba guztiak ere musukatzen dituzte, ezinbestez, eta gero oparia irekitzen dute —Marijek irekitzen du—. Barruan dauden paperezko bolak aurreikus zitekeen jakin-mina eta emozioarekin kentzen ditu. Pisutsua eta hotza da barrukoa, marmolezkoa. Dardarka, behatz puntetan elkar ukitzen duten bi eskuren eskultura azaleratzen du. Aurreikus zitekeen hunkiduraz ere hasten da negarrez. Suhiak tonu didaktikoz argitzen die Michelangelok margotutako Azken Epai Egunaren freskoan eskuen arteko ukitzea imitatzen duela. Gidoiak Marije besarkatzera bultzatzen du; Ormaechea azken alditik zenbat argaldu den konturatzen da. Egoera barregarria: opariak ederki irudikatzen du bere bizitza. Hatzak elkar itsatsita daude; egiazko margoan, ordea, ez. Izan ere, Adamek ez du eskua erabat luzatzen, Jainkoarekin lotzea nahiko ez balu bezala. Tomasek hasperen egiten du: beti zorionetik gertu eta sekula ez heltzea ere...

Umorea ozpindu egin zaio. Gogoz kontra, etxean prestatutako topiko-segida inprobisatzeko tentetzen da. Ondo baino hobeto daki hitzaldietan aipatzen ez dena garrantzizkoena dela: esaterako handik bi astetara Ormaechea Fundiciones-ek itxi beharko duela —betiko—. Esaterako ogia beren kabuz eskuratzen hasi beharko dutela, alfer halakoak.

Ezinegona biziagotzen da. Tua irentsi eta eztarria garbitzean, zitztada zorrotz bat sentitzen du bularraldean. Gora egiten zaio, bularrezurraren azpian orratz franko balu bezala. Irribarre egiten die: minutu bete darama zutik mutu. Etorri izana eskertzen die. Han egoteaz pozik dagoela, bere familiaz harro. Munduko emakumerik onenarekin ezkontzeko zortea izan duela. Eta seme-alabarik onenak ere, daudenak eta ez daudenak. Egia bakarti honek ahotsa iluntzen dio; energia batzeko isiltzen da. Xedea erdietsita: denek sumatzen dute penaz Unai isilunearen atzean.

Tomas Ormaechea borrokalariak, halere, gorputzari buelta ematen dio mendate malkartsuetan txirindulari onenen antzera. Arranditsu, kokotsa altxatzen du pausa luze bat eginez: *ecce homo*. Denek miresten dute barneko indar hura.

Pasadizo bati ekiten dio, behin safari batean entzundakoa. Hitzak ondo ahoskatuz azaltzen die Kilimanjaroren tontorrean pantera baten hezurdura betiereko elurretan izoztuta dagoela. Eta inork ez dakiela zertan zebilen pantera bere eremu naturaletik hain urrun. Berak, aldiz, bai. Garaileak eremu erosoetatik irten behar dira gauza berrien bila, arriskuak arrisku, beren senideei onena eskaini ahal izateko.

Antzerkiko pausa gordez eta eskua diktadoreek bezala altxatuz serio-serio botatzen ditu azken esaldiak: ni naiz pantera hori. Eta jakin badakit egunen batean elurak harrapatuko nauela; prezioa gustura onartzen dut zeuen onuragatik. Berriz jaioko banintz, den-dena berdin-berdin egingo nuke.

Txalo zaparradaren erdian, beti gidoiari zehatz-mehatz jarraituz, Marije jaiki, besarkatu eta lehenengo egunean bezala maite duela deklamatzeko du. Nik zu ere bai, eguneroko lau hitzok ohi duenez, airez puztuta itzultzen dizkio, paperezko itsasontzi bat uretan.

Atso arrotz hura musukatzen du, berak, Tomas Ormaechea handiak, hogei urteko gazteak, hazitarako zaldikoak, naturaren indarrak, kreazioaren mirariak, bizitzaren zentroak.

Minak amiltzen du euforia hodeitik. Bat-batean bere sendotasuna galtzen du hirurogeita hamar urteko agureak. Mahaian bermatzen da zurbil, ahoa okertuz. Ezin du arnas hartu; bularraldea hautsiko zaio. Zitzadak jasanezinak dira. Eskua bihotzaren gainean, begiak ixten dizkio oinazeak. Ez du oihurik entzuten: lurrera jausi orduko konortea galdu du.

Unai. Serio-serio begiratzen dio zortzi urteko begi urdin haiekin. Tomasek hatza ezpainera eraman eta keinu irribarretsu bat egiten dio, gaizkide: amaxori ez ezan aitaxo emakume batekin biluzik harrapatu duzula.

Epailea gorpua altxatzera heldu aurretik, autoaren leihotik erdi zintzilikatuta lagatzen dute; odola tantaka dario. Semearen gorpua burdinetatik libratzen duten bitartean gauza bat besterik ez du gogoan: penarik ez, arindura. Gaurdanik sekretua gordeta dago. Unairengandik banatzen zuen amildegia gerturatu da aise, itxi. Lubaki estua besterik ez zen; beranduegi jabetu da. Negarrez, anbulantziaren argi lotsagabeak gauaren isilpekoak azaleratzen ditu txandaka. Unai ihesean igaro zuen bizitza, ihesean hil.

Hutsa josten zaio biriketean; bat-batean, burua, hankak, besoak, atal guztiak ados ipini dira oinazea eragiteko. Begiak zabalik ditu; ikus dezakeela konturatzen da: sabai zuria. Gizon bat gainean makurtuta. Lanpararen bonbilla bat erreta.

Gizonak airez puzten dio ahoa; Ormaechea, mugitu ezinik: porlanezko zerraldo batean atxilo da, izoztuta. Tropela inguruan, Marijeren aieneak entzuten ditu.

Zer esango du jendeak? Jantoki batean konortea galtzea ere, a ze lotsa! Semeen inpotentzia eta babesgabatasuna deskubritzen du; ez dira gai ezta aitaren azken hatsean ondoan eusteko ere.

Irudia lausotzen zaio. Behintzat lantegia ez diote jadanik suntsituko. Ironia: hil zorian dago eta bare sentitzen da. Ez du fabrika itxita ikusiko. Alabaina, denbora pixka bat, pixkatxo bat baino ez, eta... inperioa berraltzatuko luke!

Ezin: nekatuta dago, lehertuta. Esnatzeak, bizitzeak, borrokatzeak energia gehiegi eskatzen dio. Itsasoan itotakoak, borrokan indar guztia xahutu ondoren, amore eman eta poliki-poliki urperatzen omen dira, betiko urruntzen den argiari so. Tomas ere beherantz doa, beherantz, etsita.

Tanzaniako safaria. Bai, paisaia berezia da eta brontzezko hanka horiek ahaztezinak dira: Daniela. Alemaniako eskultura; senarrak eta Marijek hotelean deskantsatu bitartean, haiek arratsaldeko ibilalditxo bat egitera doaz. Modu natural batean sortzen da afera: begirada pizgarria, ukitze kasuala, bestearen gerritik aldentzen ez den eskua... Abenturak xarma berezia du: Danielaren ikusgarritasuna, elkar ez ulertzea edota bien gabeziak sortua izatea, batek daki. Dena dela, izar iheskorra da, kementsu bezain labur.

Egun batzuk geroxeago, agurraren unean, Ormaechearen egoak ahuldade keinu txiki bat espero du Danielaren begietan, irribarretsu eta neutral adio egiten dioten begi berde horietan. Emakume indartsua da eta Ormaecheak horrelakoak miresten ditu, pertsonalitatea erakusten dutenak. Lehoiak ere eme boteretsua nahi du aldean: emea ehizatzeke, arra lurraldea zaintzeko, elkarrekin erresuma osatzeko. *Elkarrekin*, ez elkarri atxikita, motorra eta sidekarraren antzera.

Hori bai: emakume indartsuak gustuko izan arren azkenean ahul batekin bukatu du. Edo, hobe esanda, birekin: 20 urteren ostean, Amaia amoranteak Tomasen beharra du bizirik irauteko —zentzu material eta ez-materialean—.

Konkista fasean, Napoleonek Josefina baten aurrean zegoela pentsatu zuen. Lagun baten enpresa izan zuten agertoki: bulegora sartu eta idazteko makinarekin liskar ankerrean ari zen errubiari segituan bota zion begia. Lehenengo aro loriatsua pasata eta behin amorante ofizial bihurtuta, Amaiak lana laga zuen Ormaechearen kontura bizitzera pasatzeko.

Denboraren poderioz barruko erlojuak amatasunaren aldarria egin zioenean, kexaka hasi zitzaion Tomasen erruz ez zuelako inoiz burutuko. Honek, beti zirt edo zart eta aitzakia bat topatu izanak arinduta, harremana moztu egin zuen. Era berean eta gau horretan bertan ihardetsi zion Amaiak: ordu txikitan deituz ontziko somnifero guztiak irentsi zituela aitortzeko. Negozio borobila Ormaechearena: bi kartzela baten prezioan.

Mugimendu zatar batek deliriotik esnatzen du: altxatu egin dute, mugitu ere bai. Zeru urdin-urdin zabala, argia. Agian arazo bakarra bera izan da, emakume indartsuak gutxiagotasun konplexuagatik urrundu izan baititu.

Sorgortzen da, lanbrozko linbo batean murgildu. Ez du ezer bereizten; entzuten, ordea, bai: Corelli tenore mitikoaren ahots kementsuak abesten dio buruan. Antza, kanta gogokoak lagunduta zeharkatuko du azken ibilbidea.

Marijeri zor dio Pucciniren bitxikeria, askotan bezala: aberats-berri zirenez, pelikuletan dirudunek egiten dutena kopiatzea erabaki zuen, dena boladaka eta dena, Ormaecheak doi bat muzin egin ondoren, berehala utziz: zaldi lasterketak, klub nautikoan izena ematea, golfa, leku exotikoetara bidaiatzea... eta, azkenez, opera. 'Turandot'

programatu zuten eta hara joan ziren dotore-dotore jantzita, Vienako urteberriko vals-en gisara.

Tomas laster eskapatu zen komunera garrasika zebiltzan mozorrotutako lerdoek nazkatuta. Hori horrela, pasilloan erretzen harrapatu zuen azken ekitaldiko ariak. *Nessun dorma! Nessun dorma!* Inork ez dezala lo egin, ekin zion aingeruak. *Tu pure, o principessa, nella tua fredda stanza, guardi le stelle che tremano d'amore, e di speranza!* Barruko soka bat ukitu zion, biolin batena balitz bezala, negarraraziz. *Dilegua, o notte! Tramontate, stelle! Tramontate, stelle!*

Hiri osoa goitik behera zeharkatu zuen kanta horren bila. Geroztik, zenbat gau eman zuen behin eta berriro aria hura entzunez, kuraiezin hanpatuta. Bere une garrantzetako kantu bihurtuko zen, berriz zutitzeko, borrokatzeko eta aurrera egiteko kemena batzen lagunduko ziona.

Euforia batean, Corellirekin batera kantatzen du amaierako esaldia: *All'alba vincerò! Vincerò! Vincerò!* Energiaz beteta, egunsenti eguzkitsu batean sentitzen da, libre, azkenean, libre. Garaipena nirea izango da!

Kolpe gogor bat jasotzen du bularraldean eta arnas hartzen du etsi-etsian, itsasotik salbatu berria. Haragi errearen kiratsa usaintzen du, zorabiatuta sentitzen da. Gurutze gorrikoek kezkatuta begiratzen diote, erreakzio guztiak arretaz aztertuz.

Berehala desitxuratzen dira, egunerokotasuna itzungita. Bihotzaren taupadak motelduz entzuten ditu; jaiotzetik narratzaile moduan lagundu dion ahotsa ere haiekin batera iraungitzen da mantso-mantso. Tomas Ormaechea zenaren maisu-lana, bizimodua, familia, oinordetza, harrotasuna, oinazeak, sekretuak, damuak, kateak... denak batera desagertzen doaz.

Eta ikusten du: bizitzak elurretara eraman duela ikusten du azkenengoz. Are gehiago, panterak lekutik kanpo jarduteko arrazoia ere barneratzen du: ihesean zebilen. Ezen belaontzia, portuko soketatik solte, itsaso zabalerantz abiatuko da urperatzerara.

Pantera bere burua askatu zuelako irten zen esparru natural eta erosotik: erronka, bizipen edota abenturen bila, auskalo. Huts egin zuen, bai, baina Ormaecheak irribarretsu irudikatzen du hil zorian. Saiatu, behintzat, saiatu zelako.

Eta, elurretan betiko preso gelditzean, Ormaecheak konprenitzen du soilik erabateko porrotak egiten duela libre. Ez lanak. Ez diruak. Ez maitasunak.

Beranduegi Unairi aitortzeko konprenitzen zuela.